



Swayambhunath tenpluaren inguruetatik Kathmandu gaineko ikuspegia. • RAMON OLASAGASTI

Hiritzar bat mendi artean

Nepalgo hiriburua turismoari begira erabat itxuraldatu da azken hamarkadetan; hala ere, gordetzen du bere xarma

RAMON OLASAGASTI

Urtetan oso aurrera doan amon batek goiz osoa darama Bodahnatheko stuparen (budisten tenplua) mane erraldoiari jira eta buelta, otoitzean. Bien bitartean, turistok stupa inguratzen duten ehunka denda txikietan gabtza, gu ere jira eta buelta.

Bodahnatheko stupako eszena biek ongi islatzen dute Kathmanduren izaera: budismoaren eta hinduismoaren erroetan sustraitutako hiri eta azken 40 urteotan turismoari begira erabat itxuraldatu eta modernizatu den hiri bat dira, baina aldi berean bi hiri oso bestelako. Kathmandu ongi ezagutzen duen atzerritar batek esandakoa da: «ezin jakin turistok ekarritako aldaketak onerako edo kalterako izan diren; garbi dagoena betirako izango direla». Mende erdi eskasean, Erdi Arotik XXI. menderako jauzia egin du Nepalek eta Kathmandu da garai modernoaren ikono: Durbar Squareko tenplu eta antzinako erreinuaren aldamenean, Thamel auzoa dago, shoppingaren eta ziberkafeen erreinua. Hauxe da turiston feudoa, Thameleko mugetan sentitzen gara eroso; handik kanpo turismo horren arrimuan hazi den hiri desitxuratu, zikin eta behartsua zabaltzen baita.

Nagusiki, mendiko turismoak bisitatzen du Nepal, Himalayaren bihotzean izateko zoria baitu herrialde honek. Himalayako edertasunen bila 1960ko ha-

markadan Nepalera etorri ziren lehenbiziko hippie haiek eta *benetako* mendizale eta bidaiariak ezagutu zuten hiriak orduko xarma galdua duela diote gidaliburu guztiek eta, seguru asko, egia da. Atzerritarren kontaminazio kulturala bortitza izan da azken 30 urteotan; eta orain, hiriarren zati bat gure beharritzantara egokitu denean, iraganean ainguratutako hiriarren xarma nahiko genuke, baina oporraldirako bakarrik. Arrazoi zuen, ordea, beste hark: 1949an lehen hegazkinak Kathmandu lur hartu zuenetik, aldaketek ez dute atzera bueltarik.

Hiri zalapartatsua da Kathmandu, lehenbiziko egunean ernegatuta bukatuko du bidaiariak: bozina soinu isildu gabe, autoak, bizikletak, motorrak eta rickshawak etengabe kale estuetan gora eta behera. Eta jendea leku guztietatik: oinezkoak, kale kantoi bakoitzean ahopeka mariohuan eskaintzen duten gazte txoak, tigre baltsamoa behin eta berriro eskaintzen duten saltzaileak... Bigarren egunerako konturatzen da bidaiaria kaos horren barruan badela harmonia puntu bat, jendea lasai ibiltzen dela kaleetatik, hainbeste jotzearen poderioz bozina soinuak galdu duela bere eginkizuna... Eta orduan hasten da kale arteko barazki, jantzi eta bestelako salmenta postu

txikiei erreparatzen, mendiko ikus-entzunezkoetan hainbestetan ikusitako kolore eta usain nahas-mahas horretaz konturatzan.

Kontaminazioa

Menditik bueltan datozen alpinista eta trekinzaleek, oro har, eskertzen dituzte Kathmanduko aurrerapen eta erosotasun guztiak: dutxa beroa, maindire artean lo egitea, telefonoa, e-maila... Hirian ordaindu beharreko prezioa garestia da ordea, eta ez gara hoteleko kontuaz ari, kontaminazioaz baizik. Erregai merkea erabiltzen du-

ten milaka eta milaka autok aspaldi gandutu zuten Kathmandu gaineko zeruaren urdina, eta, poluzioaren eraginez, gero eta gehiago dira kirolfanoetako maskaratxo hori jartzen duten hiritarrak. Zaborrak ere nonahi pilatzen dira; munduko herrialderik zikinenetako bat izatearen ospea du Nepalek, eta, egia esan, zaborra ez da Kathmanduko agintarien kezkarik nagusienetako bat.

Giro politiko nahasia

Gehiago kezkatzen ditu gerrilla maoistaren ekinak. Alanbre sareko hesi ugari eta polizia kontrol zorrotzagoak nabaritzen dira bai hirian eta bai kanpoaldeko errepideetan. Nepalgo egoera politiko nahasiak eragin ikaragarria izan du bertoko bizimoduan: ia % 65-70 jaitsi da turismoa eta, ondorioz, herrialdearen diru iturri nagusiak ere beherakada nabarmena izan du. Turismoak lagatako milioika dolarrek artxila-murtxila esatea bezain fite desagerrarazten ziotuen Gobernuak lehen ere, eta herritarren artean nabarmena zen ondoeza. Gaitzaren eta sendagaiaren kalteak pairatzen ari da orain Nepal, atzerriko komunikabide erraldoiek zabaldu duten histeria giroak lagunduta. Kontrol horiek gora-behera, giro lasaia topatu dugu guk pasa den azaroan.



Bhaktapur. • RAMON OLASAGASTI

Non, zer

Zer ikusi

Thamel auzoko kaleetan gora eta behera Nepaleko bizimodura pixka bat egokitu ondoren, turista orok bisitatzen dituen tenplu eta tokiak dira hauek:

• **Durbar Square:** Hauxe da hiri zahararen bihotza. Elkarren ondoan dauden hiru plazak osatzen dute eta bertan dago antzinako Erret Jauregia ere. Tenplu budista eta hinduista pila dago plaza hauetan, 30etik gora.

• **Pashupatinath:** Nepalgo tenplu hinduista garrantzitsuenak da. Hinduista ez direnek galarazita dute sarrera, baina kanpoaldeak ere merezi du bisita. Dokumentaletan hainbat aldiz ikusitako gorputz errausketak bertan egiten dira.

• **Swayambhunath edo Tsiminikoen Tenplua:** Hiriarren gain batean kokatzen da stupa hau eta Bodhnathekin batera Nepaleko tenplu budista garrantzitsuenak da. Merezki du hara joatea: bai tokia eta bai hiriarren gaineko ikuspegia ederrak dira. Tximino ugari bizi da bertan, hortik atzerritarren artean hartu duen izena.

• **Bodhnath:** Tibetar erbesteratuen tenplu garrantzitsuenak eta budisten kultuko. Stupa erraldoia ikusgarria da eta inguruko plazatxo ere bai.

• **Bhaktapur:** Kathmandu bialarako beste hiri bat da, hiriburutik 10 kilometrora kokatua. Fededunen hiri esan nahi du eta Nepaleko hiririk ederrena dela esatea ez da exajerazioa. Durbar Square eta bertako tenpluak, bikain gorde diren newari estiloko etxeak eta, batez ere, hiriburuak aspaldi galdu zuen lasaitasuna dastatu ahalko ditu bidaiariak Bhaktapurren. Merezki du gaua bertan egitea, beste turista guztiek alde egiten dutenean, hiriarren benetako bizimodua ezagutze aldera.

• **Patan:** Bialarako beste hirigune nagusia da. Bertoko monumentu ugarien eraginez, giza-teriarren ondare izendatu zuen UNESCOk. Gomendio bat: lehenbizi joan Patanera eta gero Bhaktapurrera.

Erdi Arotik XXI. menderako jauzi bortitz horretan harrapatuta; munduko mendirik ederrenen magalean kontaminazioak itota; kaleetako zaborrak eta politikarien ustelkeriak aurpegi zikinduta; xarma lapurtu eta diru-iturri bat eskaini dion turismoak higatuta... halaxe sumatu dugu Kathmandu. Hala ere, ederra da. Guk ere lapurtu diogu xarma pixka bat, guretzat ez baitzuen dena galdua.